

UDAL AURREKONTUA
GARAPEN JASANGARRIRAKO
HELBURUEKIN
LERROKATZEN HASTEKO
GIDA PRAKTIKOA



EUDEL

EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS

UDAL AURREKONTUA
GARAPEN JASANGARRIRAKO HELBURUEKIN
LERROKATZEN HASTEKO
GIDA PRAKTIKOA



EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS

Gidaren edizio eguneratua (2024ko iraila)

Gida hau orientazio-dokumentu bat da, eta bi lan-txantiloï ditu (eranskinak*):

- Excel txantiloia, aurrekontua GJHein lerrokatzeko
- Emaizten txostenaren txantiloia

*Eranskinak jasotzeko, EUDELein harremanetan jar zaitezke edo eskaera egin, formulario honen bidez: (QR kodea eskaneatu)



Gida www.eudel.eus (argitalpenak) webgunean dago eskuragarri.

Argitaratzailea: EUDEL-Euskadiko Udalen Elkartea

Diseinua eta maketa: La Central

Inprenta: Gráficas Irala

Ercilla 13 – 48009 BILBAO

Tel. 94 423 15 00

Posta elektronikoa: eudel@eudel.eus

www.eudel.eus



EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS

AURKIBIDEA

1. ZERGATIK ETA ZERTARAKO GIDA HAU? _____	4
2. TESTUINGURUA ETA GOGOETAK _____	7
3. PROZESUAREN IKUSPEGI OROKORRAK _____	11
4. GJHEN ETA TOKIKO JARDUERA-POLITIKEN ETA -ESPARRUEN ARTEKO KORRELAZIOA _____	18
4.1. GJHEN IKUSPEGIA _____	19
4.2. PROGRAMA FUNTZIONALEN IKUSPEGIA _____	38
5. LERROKATZEKO URRATSAK _____	43

01

ZERGATIK ETA ZERTARAKO GIDA HAU?

ZERGATIK GIDA HAU?

Udal aurrekontua funtsezko tresna da politika eta zerbitzu publikoak garapen jasangarrirako helburuak lortzera bideratzeko. “Lerrokatze” ariketa honek beste urrats bat egitea dakar EAEko udalerriek GJHekiko duten konpromisoan, eta aurrera egitea Euskadiko 2030 Agendan, “behetik gora”.

EUDELen ekimen berri horrek erakundeen arteko lanean ere laguntzen du, 2030 Agendaren Eragile Anitzeko Foroan, Eusko Jaurlaritzarekin, foru-aldundiekin eta parte hartzen duten gainerako eragileekin batera.

Hain zuzen ere, erakundeen arteko bultzadarekin bat etorritz, gida eguneratzen doa, eta, 2024ko irailean, Euskara eta Kulturari eskainitako 18. GJHa sartzearen alde egin da.

Udal-aurrekontua GJHekin lerrokatzeko “Gida praktikoa” euskal erakundeen lan koordinaturako lehen ekarpen gisa sortu da, sektore publikoak GJH bakoitzari egindako aurrekontu-ekarpena kuantifikatzeko.

Lan hori egiteko, kontuan hartu behar da **euskal udalerrien egoera**, gure udalerrien zati handi batek dimentsio txikia baitu (10etik 7k 10.000 biztanle baino gutxiago dituzte).

*EUDELen 2021eko Batzar Nagusian “Euskal Udalerriek Euskadiko 2030 Agendari egindako ekarpena” dokumentua aurkeztu zen. Sektore-mailako udalerrien sareekin lankidetzan, 15 proiektu transformatzaile hautatu ziren, udalek sustatuak eta gizartearen, ekonomiaren, ingurumenaren eta gobernatzaren jasangarritasunean elkartuak.

https://www.eudel.eus/eu/file/libro_ficheros/euskal_udalerrien_ekarpena_euskadiko_2030_agenda



ZERTARAKO? HURRENGO PAUSOAK

Tresna hau hainbat lan-fasetan landu da. Lehenik eta behin, proiektu pilotu bat egin zen, **Lemoa, Zigoitia eta Zumarragako** udalei esker, tresna hori lehen bertsioan probatu baitzuten. Ondoren, EUDELe kontraste-ariketa bat egin du hainbat udalekin, eta hainbat ekarpen lortu dira, aplikazioa hobetuz joan direnak.

Gidak testuinguruari buruzko informazioa eta udal teknikarien lana errazteko behar diren orientabideak biltzen ditu. Gainera, dokumentu honek bi txantilo dituzte:

- **Excel** udal-aurrekontua lerrokatzeko
- **“Emitzen txostena”**ren eredua

Ariketa hau metodoaren proba-pilotua eta hobekuntza izango da hori ezarri nahi duten udalekin. **Helburua** da pilotatze hori udalerrri berrietara zabaltzea. Hasieran, aurrekontu-pedagogiaren funtsezko izaera izango du, udal-aurrekontuaren errealitatea eta aurrekontu horrek GJHein duen harremana bizilagun gehiagoren eskura jartze aldera. **Etorkizuneko fase batean**, arlo horretan erakundeen arteko lanak aurrera egin ahala, helburua zera izango litzateke: **dimentsio estrategikoa (adierazleak)** pixkanaka-pixkanaka txertatzen joatea. Illo horretan, asmoa da aurrekontua bera GJHez ezartzen duten jasangarritasunaren aldeko konpromisoan aurrera egiten lagunduko duen beste tresna bat izatea.

ERREFERENTZIA:

- **Eusko Jaurlaritza: Gizarte Trantsiziorako eta 2030 Agendako Eragile Anitzeko Foroa**
<https://www.euskadi.eus/eragile-anitzeko-foroa/web01-a2lehetr/eu/>

02

TESTUINGURUA ETA GOGOETAK

ZER DIRA GARAPEN JASANGARRIRAKO HELBURUAK (GJH)?

Garapen Jasangarrirako Helburuak, GJH izenarekin ere ezagutzen direnak, ekintzarako dei unibertsala dira, pobreziari amaiera emateko, planeta babesteko eta mundu osoko pertsonen bizitza eta etorkizuna hobetzeko.

2015ean, NBEren Batzar Orokorrak Garapen Iraunkorrerako 2030 Agenda onartu zuen. Plan horrek Garapen Jasangarrirako Helburuak (17) biltzen ditu eta 15 urteko epean betetzeko konpromisoa hartzen du.

17 Helburu horiez gain, Euskadi Basque Country 2030 Agendak 18. Helburua ere barne hartu du, HIZKUNTZA ETA KULTURA ANIZTASUNARI buruzkoa.

Garapen Jasangarrirako 18 helburu horiek beste 189 helburutan banatzen dira, eta, era berean, helburu edo xede horietarako 232 jarraipen-adierazle proposatzen dira.



KONTUAN HARTU BEHARREKO ERREFERENTZIAK:

- **Garapen jasangarrirako helburuak. NBE**
<https://www.un.org/sustainabledevelopment/es/development-agenda/>
- **Euskadiko 2030 Agenda. Eusko Jaurlaritza**
<https://www.euskadi.eus/eusko-jauraritza/-/2030-agenda/>

GJH ETA EUSKAL UDALERRIAK

Agenda 2030 programa unibertsala da, eta errealitate asko bere gain hartzeko prestatuta dago. Ezinbestekoa da GJHak eta haien helburuak lurreratzeko ariketa egitea, EAEko udalerrri baten errealitatearekin bat datozen ekintzak eta ekimenak identifikatzeko.

KONTUAN HARTU BEHARREKO ZENBAIT ERREFERENTZIA:

- **UDALSAREA 2030, Udalerrri Jasangarrien Euskal Sarea. 2019ko gida: “Tokiko 2030 Agenda. Nola heldu Garapen Jasangarrirako Helburuei toki-eremutik”.**
<http://www.udalsarea2030.eus/argitalpenak/tokiko030-agenda-nola-heldu-garapen-jasangarriaren-helburuei-tokiko-eremutik-gida-praktikoa-3>
- **EUSTAT: “Garapen Jasangarrirako 2030eko Agendaren adierazleak”.**
<https://eu.eustat.eus/indicadores/ods.html>

***Egungo adierazleek etorkizuneko garapena izango dute Eragile Anitzeko Foroaren erakundeen arteko proiektuan. Helburuetako bat da EAEko adierazleak udal mailako informazio zehatzarekin aberastea, estatistika sail homogeneoekin eta konparagarrieekin lan egin ahal izateko.**



ALDEZ AURREKO GOGOETAK

Gida hau erabiltzean, garrantzitsua da ohar hauek kontuan hartzea:

- Gidaliburu hau **etengabeko hobekuntza-prozesuaren** abiapuntua da. Udalek aurrekontuak hurrengo ekitaldietan GJHen ildotik lantzea sustatu nahi du.
- Lerrokatzea udalerri **bakoitzaren lan indibiduala eta “berezkoa”** da, tokiko autonomiatik eta errealitate espezifikotik abiatuta.
- Hurrengo ekitaldietan, **gako estrategiko berriak** (adierazleak, helburuak...) gehitu ahalko dira, 2030 Agendari lotutako beste magnitude batzuen aurrekontua hornitzeko.



03

PROZESUAREN IKUSPEGI OROKORRA

LERROKATZEKO PROZESUAREN IKUSPEGI OROKORRA

Lerrokatze-ariketa 3 urratsetan zehaztu daiteke, urrats bakoitzerako lan-dokumentu batekin:



- Prozesurako gida praktikoa



- Aurrekontua lerrokatzeko Excel-a



- Emaitzak aurkezteko txostenaren txantiloia

1. PAUSOA: GJHETARA TOKIKO IKUSPEGITIK HURBILTzea

Dokumentua: [Gida praktikoa](#)

Gidak GJHen ikuspegi orokorra eskaintzen du (zer diren, nondik datozen eta nola garatzen diren). Lehenengo kontsulta-iturria da, helburu globalak, unibertsalak, euskal tokiko errealitatean lurreratzea ahalbidetzen duelako.

Dokumentua GJH bakoitzerako **fitxez** osatuta dago. Fitxa horietan, gastu-politikak eta tokiko jarduera-eremu zehatzak azaltzen dira. Informazio hori erreferentzia izan daiteke aurrekontua lerrokatzeko.

Lehen dokumentu honetan aplikazio praktikoa eman beharreko urratsen azalpena ere ematen da (2. pausoa).

2. PAUSOA: PRAKTIKAN JARTZEA

Dokumentua: Aurrekontua lerrokatzeko EXCEL-a

Kontzeptuak parekatu ondoren, Excel orriak aukera emango dio udalari bere gastuen aurrekontua programa funtzionalen arabera antolatzeko eta horrekin lanean hasteko.

Gerta daiteke programa batek GJH bati baino gehiagori laguntzea. Metodologiak aukera ematen du gastu-kontzeptu bakoitzari **GJH nagusi** bat esleitzeko, aurrekontuan jasotako ekintzari modu zuzenagoan laguntzen diona, bai eta **bigarren mailako bi GJH** ere. Azken horiek zeharkako eragina izango lukete.

Tresnak GJH bat edo batzuk esletzen dizkio era automatikoan programa bakoitzari, eta udal bakoitzak, dituen beharrianen eta aukeren arabera, egoki iritzitako doikuntzak egin ditzake.

Excelak hasiera batean onartutako aurrekontua lerrokatzeko aukera ematen du eta ondorengo exekutazioa, horrela GJHtarako ekintzak betetze-mailaren jarraipena egitea errazten du horrek, eta udalari laguntzen dio estrategiak eta politikak doitzen eta erabakiak hobeto hartzen.

3. PAUSOA: EMAITZEN AURKEZPENA

Dokumentua: Emaitzen TXOSTENAREN txantiloia

Azkenik, aurrekontuaren lerrokatzea landu ondoren, herritarrei jakinarazteko unea izango da. Horretarako, txosten-txantiloia bat jarri da udalaren eskura.

Aurrekontuaren lerrokatzearen emaitza aurkezteko, GJHak **hiru dimentsiotan/alderditan** biltzen dira: soziala, ekonomikoa eta ingurumenekoa. (ikus azalpena hurrengo orrialdean).

Txantiloia hau editagarria da eta, beraz, udal bakoitzak nahi duen informazio gehigarria gehitu dezake.

Betiere, gogoan izanda GJH ikuspegia duen txosten hori “egoera-argazki” eta ariketa didaktiko gisa balioko duela, eta, hala badagokio, hurrengo ekitaldietan aurrekontuarekin batera egingo diren txostenetan finkatu beharko dela.

GJH HIRU ALDERDIETAN: SOZIALA, EKONOMIKOA ETA INGURUMENEKOA

Garapen jasangarriko eredu batek premiaz heldu behar dio trantsizio sozial eta ekologikoari, desberdintasunei amaiera eman, gizarteratzea sustatu eta gure planetaren mugak bere egite aldera. Beraz, ekonomia inklusibo eta jasangarrietan inbertitzeak oparotasun partekaturako aukera handiak eman ditzake.

Hori dela-eta, garapen jasangarriaren euskarri izan diren oinarriei esker, GJHak hiru alderditan (soziala, ekonomikoa eta ingurumenekoa) multzokatu daitezke, aurrekontua 2030 Agendaren helburuekin lerrokatutako balantze orokorraren irakurketa didaktikoagoa eskaintzeko.

Neurri horiek GJH guztiak hartzen dituzte, 16 (Bakea, Justizia eta Erakunde sendoak) eta 17 (Helburuak lortzeko aliantzak) izan ezik. Horiek zeharkako izaera dute, politika publikoak integratzeko eta koordinatzeko bidea ematen baitute.




ALDERDI SOZIALA

Alderdi soziala ulertzen da osasuna, ongizatea, hezkuntza, euskararen eta ondare kulturalaren babesa, eta herritarren eskubide sozialen aldeko konpromisora bideratutako ekintzak, arreta berezia jarritz kolektibo zaurgarrienei.

2030 Agendaren GJHen lehen talde honetan **zazpi helburu** hauek daude:

- GJH 1, Pobreziaren amaiera
- GJH 2, Gosea zero
- GJH 3, Osasuna eta Ongizatea
- GJH 4, Kalitateko hezkuntza
- GJH 5, Genero berdintasuna
- GJH 10, Desberdintasunak murriztea
- GJH 18, Hizkuntza-eta kultura-aniztasuna



ALDERDI EKONOMIKOA

Dimentsio hori hazkunde ekonomikotzat hartuta, baina betiere gizarte-, ingurumen- eta erakunde-zutabeak txertatzeko ikuspegitik. Dimentsio hori errenta handitzetik haratago doa, baliabide naturalekiko errespetuari gizarte-ongizateak duen hobekuntzari ere protagonismoa emate aldera. Era berean, **bi GJH** identifikatu dira:


- **GJH 8, Lan duina eta Hazkunde ekonomikoa**
- **GJH 9, Industria, Berrikuntza eta Azpiegitura**



INGURUMEN-ALDERDIA

Klima-aldaketaren aurkako borroka, ingurumenaren babesa eta ekoizpen- eta kontsumo-eredu jasangarrirako trantsizioa dira dimentsio horren funtsezko elementuak, eta **zazpi GJH** identifikatu dira:

- GJH 6, Ur garbia eta saneamendua
- GJH 7, Energia eskuragarria eta ez-kutsatzailea
- GJH 11, Hiri eta komunitate jasangarriak
- GJH 12, Ekoizpen eta kontsumo arduratsuak
- GJH 13, Klimaren aldeko ekintza
- GJH 14, Itsaspeko bizitza
- GJH 15, Lurreko ekosistemen bizitza



04

GJHEN ETA TOKIKO JARDUERA-POLITIKEN ETA -ESPARRUEN ARTEKO KORRELAZIOA

GASTU-POLITIKAK, TOKIKO JARDUERA-EREMUAK ETA GJH

Programa funtzionalen arabera sailkapenean oinarrituta diseinatu da tresna. Horrek laguntzen digu gastuen kontzeptuak udal-zerbitzuek aurrez definitutako helburu eta/edo xedeetara egozten.

Hori oinarri hartuta, hurrengo orrialdeetan gastu-politiken eta GJH bakoitzarekin zerikusia duten tokiko jarduera-eremu nagusien zerrenda ematen da.

Kontuan hartu behar da politika eta jarduera-eremu batzuk, zehaztasunaren arabera, zenbait GJHrekin bat etor daitezkeela.

1 POBREZIA DESAGERRARAZTEA



GJH 1 - POBREZIA DESAGERRARAZTEA

Pobreziari forma guztietan amaiera ematea mundu osoan.


GJH HONEK ERAGINDAKO GASTU-POLITIKAK

Oinarrizko gizarte-laguntza

Etxebizitza

TOKIKO JARDUERARAKO EREMU ZEHATZ NAGUSIAK

- Urrakortasun edo bazterketa egoeran dauden udalerriko pertsonei gizarte-prestazioak.
- Etxebizitza babestuen sustapena eta etxebizitzaren gizarte-programak.
- Zahartze aktiborako eta adinekoak gizarteratzeko programak abian jartzea.
- Planak eta baliabideak bultzatzea krisien aurrean (gizarte-, ekonomia- eta/edo ingurumen-esparruak), baliabide gutxien dituzten pertsontentzat.





GJH 2 - GOSERIK EZ

Gosea amaitu.

GJH HONEK ERAGINDAKO GASTU-POLITIKAK

Nekazaritzako eta
abeltzaintzako egiturak
hobetzea

Ekoizpen-sistemen
hobekuntza

Landa-garapena

Arrantza-baliabideen
babesa eta garapena

TOKIKO JARDUERARAKO EREMU ZEHAZT NAGUSIAK

- Eskala txikiko elikagaien ekoizpena sustatzea: autokontsumorako baratzeak.
- Tokiko ekoizpena sustatzea.
- Tokiko nekazaritza eta abeltzaintza ekologikoari laguntzea.
- Ekimen ekologikoak bultzatzea.
- Eskala txikiko elikagaien ekoizleen baldintzak hobetzea.
- Tokiko ekoizpen-ekosistemak mantentzen eta indartzen laguntzea, gerta daitezkeen klima-hondamendiei aurre egiteko.
- Udalerriko lehen sektorea sustatzea.





GJH 3 - OSASUNA ETA ONGIZATEA

Bizitza osasuntsua bermatzea eta adin guztietan ongizatea sustatzea.

GJH HONEK ERAGINDAKO GASTU-POLITIKAK

- Osasungarritasun publikoaren babesa
- Ospitaleak, laguntza-zerbitzuak eta osasun-zentroak
- Kirola sustatu eta sustatzea
- Kirol-instalazioak
- Trafikoa eta aparkatzea antolatzea
- Hirigintza: planeamendua, kudeaketa, exekuzioa eta hirigintza-diziplina
- Edateko uraren ethez etxeko hornidura
- Estolderia
- Kale-garbiketa
- Hilerria eta hileta-zerbitzuak

TOKIKO JARDUERARAKO EREMU ZEHAZT NAGUSIAK

- Airearen kalitatea hobetzea, mugikortasun eta garraio jasangarriaren bidez.
 - ☐ Oinezkoentzako espazioak gehitzea.
 - ☐ Bidegorrien sarea handitzea.
 - ☐ Udalaren ibilgailu elektrikoen inplementazioa.
- Bizimodu osasungarria sustatzea udalerriko biztanleen artean.
- Udalerriko bide-segurtasuna eta trafikoko istripuen prebentzioa sustatzea.
- Kutsadura akustikoa minimizatzea.
- Sexu- eta ugalketa-osasuneko zerbitzuetarako sarbidea: familia-plangintza, informazioa eta hezkuntza.
- Udalerriaren inguruko osasungarritasunaren bermea.
- Tokiko herritarrendako kirol jarduera sustatzea, bai eta kalitatezko kirol ekipamenduen hornidura ere.
- Oinarrizko osasun ekipamendu eta zerbitzuak udalerriko biztanle guztiei eskuratzeko bermea.
- Zenbait gaixotasunen prebentzioa eta sentsibilizazioa.

4

KALITATEZKO
HEZKUNTZA

GJH 4 - KALITATEZKO HEZKUNTZA


Hezkuntza inklusiboa, bidezkoa eta kalitatezkoa bermatzea eta bizitza osoan ikasteko aukerak sustatzea guztiontzat.

GJH HONEK ERAGINDAKO GASTU-POLITIKAK

- Hezkuntza
- Kultura
- Enpleguaren sustapena
- Ikerketa, garapena eta berrikuntza
- Ezagutzaren kudeaketa

TOKIKO JARDUERARAKO EREMU ZEHAZT NAGUSIAK

- Tokiko kultura-ekosistema dinamizatzea: ekipamenduak, elkarteak, etab.
- Hezkuntza-, kultura- eta kirol- ekipamenduak eskuratzea eta hobetzea, berdintasunaren eta integrazioaren ikuspuntutik.
- Teknologia berrietarako sarbidea sustatzea.
- Lan duina izateko gaitasunak sustatzea.
- Ekintzailatza sustatzea udalerrian.
- Udalerrian jasangarritasunerako, kulturartekotasunerako, bakerako eta bizikidetzarako hezkuntza sustatzea.





GJH 5 - GENERO BERDINTASUNA

Generoen arteko berdintasuna lortzea eta emakume eta neska guztiak ahalduntzea.

GJH HONEK ERAGINDAKO GASTU-POLITIKAK

- Hirigintza
- Gizarte-zerbitzuak eta gizarte-sustapena
- Oinarrizko gizarte-laguntza
- Enpleguaren sustapena
- Herritarren bizikidetza sustatzea

TOKIKO JARDUERARAKO EREMU ZEHATZ NAGUSIAK

- Genero-ikuspegia duen plangintza (hirigintza, gizartea, jasangarritasuna...).
- Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa.
- Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimenezako arreta indartzea.
- Udalaren berdintasun-politikak sustatzea.
- Udalaren gizarte-zerbitzuak indartzea.
- Udalerriko herritarrak berdintasunaren arloan sentsibilizatzea.
- Etxeko lanak eta ordaindu gabeko zainketa-lanak ezagutzea.
- Udalerrian berdintasuna sustatzen duten elkarteak edo gizarte-mugimenduak sustatzea.



GJH 6 - UR GARBIA ETA SANEAMENDUA

**Uraren eskuragarritasuna, kudeaketa
jasangarria eta guztiontzako
saneamendua bermatzea**

GJH HONEK ERAGINDAKO GASTU-POLITIKAK

- Edateko uraren etxez etxeko hornidura
- Hondakin uren hustuketa eta tratamendua
- Estolderia
- Baliabide hidraulikoak

TOKIKO JARDUERARAKO EREMU ZEHAZT NAGUSIAK

- Horniduraren kudeaketa: kantitatea eta kalitatea.
- Udalerriko uraren saneamenduaren kudeaketa.
- Ur-horniduraren sarea mantentzea eta/edo hobetzea.
- Udalerriko biztanleak eta enpresa-jarduerak uraren erabilera eta kontsumo jasangarriaz sentsibilizatzea.
- Hondakin-urak arazteko sistemak hobetzea.
- Beste administrazio batzuekin koordinatzea, uraren kudeaketa integratua egiteko.





GJH 7 - ENERGIA IRISGARRIA ETA EZ KUTSAGARRIA

**Energia eskuragarria, segurua, iraunkorra
eta modernoa izateko aukera bermatzea.**

GJH HONEK ERAGINDAKO GASTU-POLITIKAK

Argiteria publikoa

Energia

Udalaren instalazioak: kirola,
kultura, etab

TOKIKO JARDUERARAKO EREMU ZEHAZT NAGUSIAK

- Udal-instalazioetan energia garbiak eta berriztagarriak ezartzea.
- Argiteria publikoan energia-kontsumoa optimizatzea.
- Udal-ibilgailuen energia-kontsumoaren optimizazioa.
- Udalerriko biztanleak eta enpresa-jarduerak energiaren erabilera eta kontsumo jasangarriaz sentsibilizatzea.
- Udalerrian pobrezia energetikoko egoerak murrizteko neurri sozialak sustatzea.
- Etxebizitza partikularretan eraginkortasun energetikoko irizpideak sustatzea.
- Aplikatu beharreko hobari fiskalen azterketa.





GJH 8 - LAN DUINA ETA HAZKUNDE EKONOMIKOA

**Hazkunde ekonomiko inklusiboa eta
jasangarria, enplegua eta guztiontzako
egokia den lana sustatzea.**

GJH HONEK ERAGINDAKO GASTU-POLITIKAK

- Enpleguaren sustapena
- Pentsioak
- Langileentzako beste prestazio ekonomiko batzuk
- Kultur ekipamenduak eta museoak
- Kultur sustapena
- Industria eta meatzaritza
- Merkataritza, turismoa eta enpresa txiki eta ertainak
- Ikerketa, garapena eta berrikuntza

TOKIKO JARDUERARAKO EREMU ZEHAZT NAGUSIAK

- Ekintzailetasuna sustatzea udal ingurunean.
- Langabetuei lanerako orientazioa ematea.
- Lan merkatuan sartzeko prestakuntza eta ekintzak ematea.
- Udalerrian jarduera ekonomiko berrien garapena sustatzea.
- Udalerriko industria-sareari balioa ematea.
- Udalerriko turismo jasangarria sustatzea.
- Tokiko ekoizpena balioztatzea.
- Lan-ingurune segurua, egokia eta arriskurik gabea sustatzea udaleko langileentzat.
- Udaleko langileen kontratazioan berdintasun politikak sartzea.
- Udalerriko jarduera ekonomikoei buruzko sentsibilizazioa, lan seguruari, zintzoari eta arriskurik gabekoei buruz.
- Tokiko enpresa-sarearen berrikuntza teknologikoa eta ingurumen-kalitatea sustatzea.



GJH 9 - INDUSTRIA, BERRIKUNTZA ETA AZPIEGITURA

**Azpiegitura erresilienteak eraikitzea,
industrializazio jasangarria sustatzea
eta berrikuntza sustatzea.**

GJH HONEK ERAGINDAKO GASTU-POLITIKAK

- Garraio-azpiegiturak
- Salgaien garraioa
- Industria
- Meatzaritza
- Errepideak
- Auzo-bideak
- Bestelako azpiegiturak
- Zerbitzu publikoekin
zerikusia duten ikerketa eta
azterlanak
- Ikerketa zientifikoa, teknikoa
eta aplikatua
- Informazioaren gizartea

TOKIKO JARDUERARAKO EREMU ZEHAZT NAGUSIAK

- Udalaren jarduera ekonomikoek ingurumena betetzen dutela zaintzea.
- Udalaren jarduera ekonomikoak legez betetzen direla zaintzea.
- Udalerriko enpresa- eta merkataritza-sarean ekimen iraunkorrak sustatzea.
- Udal azpiegiturak mantendu eta hobetzea, jasangarritasunaren eta erresilientziaren ikuspegitik.
- Udalean bertan ikerketa eta garapena sustatzea.
- Udal erakundean informazio sistemak hobetzea.
- Beste erakunde batzuekin lankidetzan aritzea berrikuntza sustatzeko.





GJH 10 - DESBERDINTASUNAK MURRIZTEA

Herrialdeen arteko eta herrialdeetako desberdintasunak murriztea.

GJH HONEK ERAGINDAKO GASTU-POLITIKAK

- Oinarrizko gizarte-laguntza
- Politika ekonomiko eta fiskala
- Zerga-sistemaren kudeaketa
- Enpleguaren sustapena
- Etxebizitza

TOKIKO JARDUERARAKO EREMU ZEHATZ NAGUSIAK

- Udalerriko etorkinak integratzeko plangintza eta ekintzak.
- Udalerriko talde ahulen integrazioa eta garapena sustatzea: adinekoak, haurrak, emakumeak, etab.
- Etxebizitza libre eta babestuen plangintza, udalerraren beharren arabera.
- Jabetzako eta alokairuko etxebizitzaren plangintza, udalerraren beharren arabera.
- Udalerriko etxebizitza hutsen tasa hobetzea.





GJH 11 - HIRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK

**Hiriak integratzaileagoak, seguruagoak,
erresilienteagoak eta jasangarriagoak
izan daitezen lortzea.**

GJH HONEK ERAGINDAKO GASTU-POLITIKAK

- Hirigintza
- Etxebizitza
- Landa-garapena
- Bide publikoak
- Auzo-bideak
- Hiri-mugikortasuna
- Babes zibila
- Kale-garbiketa
- Hilerria
- Ingurumena babestea eta hobetzea
- Bidaiarien garraioa

TOKIKO JARDUERARAKO EREMU ZEHAZT NAGUSIAK

- Herritarrek parte hartzeko mekanismoak prestatzea.
- Udalerriko elkarte-jarduera sustatzea.
- Berdeguneen bermea.
- Herritarrentzako oinarritzko ekipamendu eta zerbitzuen bermea.
- Landa-eremuak sustatzea eta landa-, hiri- eta hiri-inguruneen arteko loturak sustatzea.
- Etxebizitza duina planifikatzea, gizarteratzeari laguntzeko.
- Eremu eta auzo degradatuak bultzatu eta berreskuratzea.
- Bide, sarbide eta bide seguruak eta genero-ikuspegia dutenak bermatzea.
- Udalerriko sistema eta baliabide naturalen babesa.
- Garraio publiko eskuragarria, eskuragarria eta jasangarria sustatzea.
- Hiri-plangintza integratzailea eta jasangarria.
- Airearen kutsadura murrizteko eta prebenitzeko planak eta ekintzak sustatzea.
- Hiri-hondakinak eta industria-hondakinak murrizteko eta prebenitzeko planak eta ekintzak sustatzea.
- Ekonomia zirkularreko politikak sustatzea.



GJH 12 - EKOIZPEN ETA KONTSUMO ARDURATSUAK

**Kontsumo eta ekoizpen modu
jasangarriak bermatzea.**

GJH HONEK ERAGINDAKO GASTU-POLITIKAK

Hondakinen bilketa,
kudeaketa eta tratamendua

Kontsumitzaile eta
erabiltzaileen babesa

Ingurumena babestea eta
hobetzea

Industria eta meatzaritza

Merkataritza, turismoa eta
enpresa txiki eta ertainak

Herritarrentzako arreta

TOKIKO JARDUERARAKO EREMU ZEHAZT NAGUSIAK

- Erosketa eta kontratazio publikoan ingurumen- eta gizarte-irizpideak sartzea.
- Tokiko erakundeko langileak sustatzea eta sentsibilizatzea ingurumena zaintzeko.
- Udalak bere ingurunean duen ingurumen-inpaktua murrizteko plangintza eta ekintzak.
- Hondakinen kudeaketarekin lotutako politika fiskalak sustatzea.
- Herritarren artean kontsumo arduratsua bultzatzeko sentsibilizazio- eta komunikazio-kanpainak abian jartzea.
- Sentsibilizazio- eta komunikazio-kanpainak abiaraztea, ahalik eta hondakin gutxien sortzeko eta birziklatze- eta balorizazio-tasak hobetzeko.
- Elikagaien hondakinen aurkako kanpainak abiaraztea.



GJH 13 - KLIMAREN ALDEKO EKINTZA

Klima-aldaketari eta haren ondorioei aurre egiteko premiazko neurriak hartzea.

GJH HONEK ERAGINDAKO GASTU-POLITIKAK

- Hiri-mugikortasuna
- Trafikoa eta aparkatzea antolatzea
- Ingurumena babestea eta hobetzea
- Hondartzak
- Parkeak eta lorategiak
- Garraio publikoa
- Azpiegiturak

TOKIKO JARDUERARAKO EREMU ZEHAZT NAGUSIAK

- Klima-mehatxuek izan ditzaketen inpaktuen tokiko plangintza.
- Klima-aldaketara egokitzeko ikuspegia duen hirigintza-plangintza.
- Udalerrian berotegi-efektuko gasen emisioak murrizteko tokiko ekintzak planifikatzea.
- Klima-aldaketaren arloko tokiko ekintzak sustatzea hainbat udal-sektoretan (herritarrak, elkarteak, ekonomia-jarduerak...).
- Herritarrak sentsibilizatzeko ekintzak sustatzea.
- Aplikatu beharreko hobari fiskalen azterketa.





GJH 14 - ITSASPEKO BIZITZA

**Ozeanoak, itsasoak eta itsas
baliabideak kontserbatzea eta modu
jasangarrian erabiltzea.**

GJH HONEK ERAGINDAKO GASTU-POLITIKAK

Hondartzak

Arrantza-baliabideen
babesa eta garapena

Nekazaritza, abeltzaintza
eta arrantzako beste
jarduketa batzuk

TOKIKO JARDUERARAKO EREMU ZEHAZT NAGUSIAK

- Bainatzeko uren kalitatearen kontrola.
- Itsasora isurtzen diren hondakin-uren kontrola.
- Arrantza-sektorearen lehiakortasuna sustatzea.
- Itsasoari lotutako aisialdiko jardueren sustapena.
- Udalerriko itsas-eremuari balioa ematea.
- Itsasoaren egoera ona zaintzearen garrantziaz herritarrek sentsibilizatzeko kanpainak abiaraztea.



15 LEHORREKO EKOSISTEMETAKO BIZITZA



GJH 15 - LEHORREKO EKOSISTEMETAKO BIZITZA

Basoak modu iraunkorrean kudeatzea, desertifikazioaren aurka borrokatzea, lurren degradazioa geldiaraztea eta alderantzikatzea, biodibertsitatearen galera geldiaraztea.

GJH HONEK ERAGINDAKO GASTU-POLITIKAK

- Babes zibila
- Suhiltzaile Zerbitzua
- Parkeak eta lorategiak
- Nekazaritza eta abeltzaintzako egiturak eta produkzio-sistemak hobetzea
- Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako beste jarduketak batzuk

TOKIKO JARDUERARAKO EREMU ZEHATZ NAGUSIAK

- Ekosistemen babesa eta leheneratzea.
- Udal-paisaiaren kontserbazioa.
- Udalerriko natur ondarea sustatzea eta balioa ematea.
- Udalerriko natur baliabideen erabilera arduratsuari buruzko sentsibilizazioa.
- Udalerriko ekosistemak eta dibertsitate biologikoa tokiko plangintzan txertatzea.





GJH 16 - BAKEA, JUSTICIA ETA INSTITUZIO SENDOAK

Gizarte bidezkoak, baketsuak eta integratzaileak sustatzea.

GJH HONEK ERAGINDAKO GASTU-POLITIKAK

- Segurtasuna eta ordena publikoa
- Herritarren bizikidetza sustatzea
- Gobernu-organoak
- Oinarrizko informazioa eta estatistika
- Herritarren parte-hartzea
- Herritarrentzako arreta
- Ondarearen kudeaketa
- Zorren eta diruzaintzaren kudeaketa
- Ezustekoak eta sailkatu gabeko eginkizunak

TOKIKO JARDUERARAKO EREMU ZEHATZ NAGUSIAK

- Herritarrek parte hartzeko mekanismoak sustatzea.
- Kontuak emateko mekanismoak abiaraztea.
- Iruzurraren aurkako mekanismoak abian jartzea.
- Informazioa eskuratzeko bermea.
- Erakundearen gardentasunerako ekintzak sustatzea.
- Udalerriko kultur aniztasuna baloratzea.
- Udalerrian bakea eta bizikidetza sustatzea.
- Inguru segurua duen udalerri baten bermea, emakumeak, haurrak edo adineko pertsonak barne.



GJH 17 - HELBURUAK LORTZEKO ALIANZA

**Garapen Jasangarrirako Mundu
Aliantza suspertzea.**

GJH HONEK ERAGINDAKO GASTU-POLITIKAK

Toki-entitateen koordinazioa
eta antolaketa instituzionala

Barne-komunikazioak

Gobernu-organoak

Beste administrazio
batzuetarako transferentziak

TOKIKO JARDUERARAKO EREMU ZEHAZT NAGUSIAK

- Lankidetza publikoko eta pribatuko mekanismoak bultzatzea.
- Udalerriko elkarte-sarearekiko harremanak sustatzea.
- Beste erakunde batzuekiko lankidetza-sareak sustatzea.
- Informazioa trukatzeko sare, foro edo klusterretako kide izatea.
- Planak eta programak ebaluatzeko sistemak ezartzea.
- Elkartasun-ekintzak sustatzea.





GJH 18- HIZKUNTZA —ETA KULTURA - ANIZTASUNA

Hizkuntza eta kultura guztien presentzia eta errekonozimendua bermatzea, garapen pertsonal eta sozialerako ezinbesteko faktore gisa.

GJH HONEK ERAGINDAKO GASTU-POLITIKAK

- Euskera
- Ondare historiko artistikoaren babesa eta kudeaketa
- Herriko festak
- Informazioa eta turismoren sustapena
- Kultura-sustapena
- Kultura-ekipamenduak eta museoak
- Liburutegiak eta artxiboak
- Hezkuntza

TOKIKO JARDUERARAKO EREMU ZEHATZ NAGUSIAK

- Euskararen sustapena.
- Tokiko ondarearen sustapena.
- Tokiko kultura- eta natura-ondarea mantentzea eta hobetzea.
- Euskara sustatzea zenbait taldetan.
- Pertsona guztien hizkuntza-eskubideak bermatzeko ekintzak.
- Hizkuntza-aldagaia genero-berdintasuneko politiketan sartzea, eta alderantziz.




GASTU-EREMUA	GASTU-POLITIKA	PROGRAMA FUNTZIONALEN TALDEA	IZENA	GJH NAGUSIA	BIGARREN MAILAKO GJH
1			OINARRIZKO ZERBITZU PUBLIKOAK		
	13		Herritarren segurtasuna eta mugikortasuna	3,11,16	11,13,15
		130	Segurtasun eta babes zibilaren administrazio orokorra	3,11,16	13,15
		132	Segurtasuna eta ordena publikoa	16	
		133	Trafikoa eta aparkatzea antolatzea	3	11,13
		134	Hiri-mugikortasuna	11	13
		135	Babes zibila	11	15
		136	Suhiltzaile Zerbitzua	11	15
	15		Etxebizitza eta hirigintza	11	1,3,5,9,10
		150	Etxebizitza eta Hirigintzako Administrazio Orokorra	11	1,3,5,9,10
		151	Hirigintza: planeamendua, kudeaketa, exekuzioa eta hirigintza diziplina	11	3, 5
		152	Etxebizitza	11	1, 10
		153	Bide publikoak	11	9
	16		Gizarte ongizatea	6,7,11,12	3,9,11,14
		160	Estolderia	6	3,11
		161	Edateko uraren etxez etxeko hornidura	6	3,9
		162	Hondakinen bilketa, kudeaketa eta tratamendua	12	11
		163	Kale-garbiketa	11	3
		164	Hilerria eta hileta zerbitzuak	11	3
		165	Argiteria publikoa	7	11
		166	Hondakin uren hustuketa eta tratamendua	6	14
	17		Ingurumena	11,14,15	11,12,13
		170	Ingurumenaren administrazio orokorra	11,14,15	12,13
		171	Parkeak eta lorategiak	15	11,13
		172	Ingurumena babestea eta hobetzea	11	12,13
		173	Hondartzak	14	13

GASTU-EREMUA	GASTU-POLITIKA	PROGRAMA FUNTZIONALEN TALDEA	IZENA	GJH NAGUSIA	BIGARREN MAILAKO GJH
2		BABES ETA SUSTAPEN SOZIALEKO JARDUKETAK			
	21		Pentsioak	8	10
		211	Pentsioak	8	10
	22		Langileentzako beste prestazio ekonomiko batzuk	8	10
		221	Langileentzako beste prestazio ekonomiko batzuk	8	10
	23		Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena	10	1,5
		230	Gizarte zerbitzuen administrazio orokorra	10	1,5
		231	Oinarrizko gizarte laguntza	10	1,5
	24		Enpleguaren sustapena	8	4, 10
		241	Enpleguaren sustapena	8	4, 10
3		LEHENTASUNEZKO ONDASUN PUBLIKOEN EKOIZPENA			
	31		Osasuna	3	9,11
		311	Osasungarritasun publikoaren babesa	3	11
		312	Ospitaleak, laguntza-zerbitzuak eta osasun-zentroak	3	7,9
	32		Hezkuntza	4,16	5,7,9
		320	Hezkuntza-administrazio orokorra	4	5,7,9
		321	Haur eta lehen hezkuntzako ikastetxeak sortzea	4	7,9
		322	Bigarren hezkuntzako ikastetxeak sortzea	4	7,9
		323	Haur eta Lehen Hezkuntzako eta Hezkuntza Bereziko ikastetxeen funtzionamendua	4	18
		324	Bigarren hezkuntzako ikastetxeen funtzionamendua	4	18
		325	Derrigorrezko eskolatzea betetzen dela zaintzea	4	
		326	Hezkuntzako zerbitzu osagarriak	4	18
		327	Herritarren bizikidetza sustatzea	16	5,18
	33		Kultura	4,11	7,8,9,11
		330	Kultura Administrazio Orokorra	4	7,8,9,11
		332	Liburutegiak eta artxiboak	4	7,18
		333	Kultur ekipamenduak eta museoak	4	8,18
		334	Kultur sustapena	4	8,18
		335	Euskara	18	4,11
		336	Ondare historiko artistikoaren babesa eta kudeaketa	18	8,11

GASTU-EREMUA	GASTU-POLITIKA	PROGRAMA FUNTZIONALEN TALDEA	IZENA	GJH NAGUSIA	BIGARREN MAILAKO GJH
		337	Denbora librea okupatzeko instalazioak	4	7,18
		338	Herriko festak	18	4,8
	34		Kirola	3	7,9,11
		340	Kirol Administrazio Orokorra	3	7,9,11
		341	Kirola sustatu eta sustatzea	3	11,18
		342	Kirol instalazioak	3	7,9
4			JARDUERA EKONOMIKOAK		
	41		Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	2,11,14	15
		410	Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako administrazio orokorra	2,11,14	2,15
		412	Nekazaritza eta abeltzaintzako egiturak eta produkzio sistemak hobetzea	2	15
		414	Landa garapena	11	2
		415	Arrantza-baliabideen babesa eta garapena	14	2
		419	Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako beste jarduketa batzuk	2	11,14,15
	42		Industria eta energia	7,9	8,12
		420	Industria eta energiaren administrazio orokorra	7,9	8,12
		422	Industria	9	8,12
		423	Meatzaritza	9	8,12
		425	Energia	7	
	43		Merkataritza, turismoa eta enpresa txiki eta ertainak	8	11,12
		430	Merkataritza, turismo eta enpresa txiki eta ertainen administrazio orokorra	8	11,12
		431	Merkataritza	8	12,18
		432	Turismo informazioa eta sustapena	8	12,18
		433	Enpresa-garapena	8	12,18
		439	Beste jarduera sektorial batzuk	8	18
	44		Garraio publikoa	9,11	3,11,13
		440	Garraioaren administrazio orokorra	9,11	3,11,13
		441	Bidaia-erien garraioa	11	3,13
		442	Garraio-azpiegiturak	9	11,13
		443	Salgaien garraioa	9	13

GASTU-EREMUA	GASTU-POLITIKA	PROGRAMA FUNTZIONALEN TALDEA	IZENA	GJH NAGUSIA	BIGARREN MAILAKO GJH
45		Azpiegiturak		6,9,11	13
		450	Azpiegituren administrazio orokorra	6,9,11	13
		452	Baliabide hidraulikoak	6	9,11
		453	Errepideak	9	11,13
		454	Auzo-bideak	11	9,13
		459	Bestelako azpiegiturak	9	11,13
46		Ikerketa, garapena eta berrikuntza		9	4,8
		462	Zerbitzu publikoekin zerikusia duten ikerketa eta azterlanak	9	4,8
		463	Ikerketa zientifikoa, teknikoa eta aplikatua	9	4,8
49		Bestelako jarduera ekonomikoak		4,9,12	
		491	Informazioaren gizartea	9	
		492	Ezagutzaren kudeaketa	4	
		493	Kontsumitzaile eta erabiltzaileen babesa	12	18
9		JARDUKETA OROKORRAK			
91		Gobernu-organoak		16	17
		912	Gobernu-organoak	16	17
92		Zerbitzu orokorrak		16,17	11,12
		920	Administrazio orokorra	16,17	11,12
		922	Toki entitateen koordinazioa eta antolaketa instituzionala	17	16,18
		923	Oinarrizko informazioa eta estatistika	16	17
		924	Herritarren parte-hartzea	16	11,18
		925	Herritarrentzako arreta	16	12,17,18
		926	Barne-komunikazioak	17	
		929	Ezustekoak eta sailkatu gabeko eginkizunak	16	
93		Finantza- eta zerga-administrazioa		10,11,16	
		931	Politika ekonomiko eta fiskala	10	16
		932	Zerga sistemaren kudeaketa	10	16
		933	Ondarearen kudeaketa	11	16,18
		934	Zorraren eta diruzaintzaren kudeaketa	16	

GASTU-EREMUA	GASTU-POLITIKA	PROGRAMA FUNTZIONALEN TALDEA	IZENA	GJH NAGUSIA	BIGARREN MAILAKO GJH
	94		Transferentziak beste administrazio publiko batzuetara	17	
		941	Autonomia Erkidegorako transferentziak	17	
		942	Transferentziak foru aldundi, mankomunitate eta partzuergoei	17	
		943	Toki entitateentzako transferentziak	17	
		944	Transferentziak Estatuko Administrazio Orokorrera	17	
0			ZOR PUBLIKOA		
	01		Zor publikoa	17	
		11	Zor publikoa	17	



05

LERROKATZEA EGITEKO PAUSOAK

1. PAUSOA

> Udalaren kontabilitate-sistematik bertatik, onartutako eta exekutatutako gastuen aurrekontua deskargatu eta **itsatsi** (27. errenkadatik aurrera), programa funtzionalaren arabera ordenatuta, zutabe hauekin:

- Sailkapen organikoa
- Programa funtzionalaren zenbakia.
- Sailkapen ekonomikoaren zenbakia.
- Deskribapena.
- Zenbatekoa eurotan - onartuta
- Zenbatekoa eurotan - exekutatuta

> **B zutabeko** iragazkia erabiliz, taldekatu handienetik txikienera programaren arabera (hori baliozkoa da sailkapen organiko desberdinak dauden eta programaren arabera taldekatu behar diren kasuetan).

> Aurrekontuaren **E eta F zutabeak** guztira jartzea, onartutako eta exekutatutako zenbatekoarekin bat etor dadin. Alderik bada, justifikatu egin behar dira.

> Onarpen- eta exekuzio-taula dinamikoak eguneratzea, datuak 2. urratsera automatikoki iraul daitezen.

Lan-excel-a bistaratzea

				Onartua	Exekutua
Aurrekontua guztira (E zutabearen batukaria)				0,00 €	0,00 €
Aurrekontuaren zenbatekoa sartu					
Kendura				0,00 €	0,00 €

Sailkapen organikoa (zk.)	Programa funtzionala (nº)	Sailkapen ekonomikoa (nº)	Deskribapena (testua)	Onartutako aurrekontua (eurotan)	Exekututako aurrekontua (eurotan)

Zergatik programa funtzionaleko?

Sailkapen hori erabiliz, gastuen kontzeptuak udal-zerbitzuetan aldeztu aurretik zehaztutako helburu eta/edo xedeekin erlazionatzen lagunduko dugu. Sailkapen ekonomikoaren zutabeari eusteak informazio gehiago ematen digu, gastua zertarako erabiliko den argi izateko.



2. PAUSOA

- Onartutako aurrekontuaren guztizko zenbatekoa eskuz sartu, datuak behar bezala irauli direla egiaztatzeko. Kendura 0 izan behar da.
- Aurrekontuan sartutako zenbatekoaren zati bat, GJH bakoitzari dagokiona, eskuz egoztea, **E zutabeko** printzipaletik hasita, **G eta I zutabeetako** bigarren mailakoetatik jarraitu. Proposatutako eta lehenetsitako GJHak erabili ahal izango dira, edo, egoki iritziz gero, aldatu.
- **J zutabea**, inongo GJHri egotzi ez zaion aurrekontu aplikazioaren zenbatekoa adierazi behar duzue.
- **K kontrol-zutabea**, zenbatekoa 0 izan beharko da, aurrekontu osoa kontuan hartu dela egiaztatzeko.


Lan-excel bistaratzea

Aurrekontua guztira (C zutabearen batukaria)			0,00 €																	
Onartutako aurrekontua sartu																				
Kendura			0,00 €																	
Programa [ik.]	Deskribapena (testua)	Onartutako aurrekontua (eurotan)	GJH nagusia	GJH nagusiaren eragina (eurotan)	Bigarren mailako OOS	Bigarren mailako GJHen eragina (eurotan)	Bigarren mailako OOS	Bigarren mailako GJHen eragina (eurotan)	GJHri egotzi gabeko (eurotan)	Kontrola										
130	Segurtasun eta babes zibileko administrazio orokorra	0,00 €	GJH11		GJH16			GJH13		0,00										
132	Segurtasuna eta ordena publikoa	0,00 €	GJH16							0,00										
133	Trafiko eta aparkatzea antolatzea	0,00 €	GJH9		GJH11			GJH13		0,00										
134	Hiri-mugikortasuna	0,00 €	GJH11		GJH13					0,00										
135	Babes zibila	0,00 €	GJH11		GJH15					0,00										
136	Suhiltzaile Zerbitzua	0,00 €	GJH11		GJH15					0,00										
150	Etezbizitzaren eta hirigintzaren administrazio orokorra	0,00 €	GJH11		GJH9			GJH1		0,00										
151	Hirigintza, planeamendua, kudeaketa, exekuzioa eta hirigintza disciplina	0,00 €	GJH11		GJH9			GJH5		0,00										
152	Etezbizitza	0,00 €	GJH11		GJH1			GJH10		0,00										
153	Bide publikoak	0,00 €	GJH11		GJH9					0,00										

4. PAUSOA

- Lortutako datuen azterketa
- Grafikoak automatikoki osatzen dira 2. eta 3. urratsetatik aurrera, eta ez da daturik eskuz sartu behar

Lan-excel-a bistaratzea - 2. urratsako grafikoa (onartutako aurrekontua)



Lan-excel-a bistaratzea - 3. urratseko grafikoa (exekutututako aurrekontua)







EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS